



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 175. INFORMAZIO BULETINA

> 2022ko maiatza



Fondo Europeo de  
Desarrollo Regional (FEDER)  
*"Una manera de hacer Europa"*

Eskualde Garapenerako  
Europar Funtza (EGEF)  
*"Europa egiteko modu bat"*

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas

GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

- > **Arku Atlantikoko Batzordearen Batzar Nagusiak, Urkullu lehendakaria buru dela, 60 milioi pertsonako itsas eskualde atlantiko bat sortzea eskatzen die estatuei, EBko biztanleen % 12**

Lehendakariak berriro aldarrikatu du gune atlantiko sendo bat, egungo erronkei aurre egiten jarraitzeko, eta, aldi berean, Atlantikoko Korridoreari behin betiko bultzada emateko eskatu du, duela zazpi urte bezala. Iñigo Urkulluk Arku Atlantikoko Batzordeak Donostian egin duen Batzar Nagusia inauguratu du. Batzar horretan Euskadik beste bi urtez berrituko du 2020. urteaz geroztik duen lehendakaritza.

Lehendakariak, bere hitzaldian, adierazi du fatxada atlantikoa Europar Batasunaren eztabaiden eta erabaki-hartzearen erdigunean jartzeko asmoa komuna dela. "Bi helburu partekatzen ditugu: inor atzean ez uztea, Nazio Batuen 2030 Agendak planteatzen duen bezala; eta eremu atlantikoak Europar Batasun osoari egin diezaiokeen ekarpena maximizatzea, garapen ekonomiko, sozial eta lurralde-garapen iraunkorrari dagokionez" -esan du.

Osoko bilkuran, Lehendakariak Euskadi Europako etorkizunari buruzko konferentziaren aurrean dokumentua partekatu du gainerako bertaratuekin. Dokumentu horretan Euskadik Europar Batasunari buruz duen ikuspegia islatu da, eta euskal ekarpena jaso da, giza garapen jasangarriaren eremuan oinarrituta. Azaldu duenez, Tratatuak erreformatzeko proposamen eraginkorrak bildu dira dokumentuan, eta estatuaz azpiko gobernuen, eskualdeetako gobernuen eta gobernu nazionalen balioa aldarrikatu da, Europar Batasunaren gobernantza hobea eta aberatsagoa izan dadin.

Arku Atlantikoko Batzordea Frantziako, Espainiako, Portugalgo, Irlandako eta Erresuma Batuko eskualdeek eratzen dute. 60 milioi biztanle inguru ditu, eta Europako biztanleriaren % 12 da; gaur egun, Iñigo Urkullu Lehendakaria da batzordeburua.

Batzordearen zeregina da eskualde-interesak defendatzea Erkidegoko instantzien eta estatu kideen aurrean. Haren helburu nagusia gizarte-, ekonomia- eta lurralde-kohesioan, itsas politika integratuan eta garraioaren irisgarritasunean oinarritzen da. Europako gobernamentua, nekazaritza eta landa-garapena, ikerketa eta berrikuntza, energia eta klima-aldaketa eta auzotasun-harremanak ere badira elkartearentzako jarduera-arlo oso garrantzitsuak.

Arku Atlantikoa Europako Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren 6 lan-batzorde geografikoetako bat da; 25 estatutako 160 eskualdek osatzen dute, eta 200 milioi biztanle inguru ordezkatzeko ditu. Erakunde horrek Europako lurraldearen garapen orekatuagoa sustatzen du, eta, gaur egun, Cees Loggen du buru, Noord-Holland Holandako probintziako eskualde-ministroa.

[\(informazio +\)](#)



> 2022ko maiatza

- > **Europaren Egunean, Aldundiak jardunaldi bat egin zuen Etorkizuna Eraikiz etorkizuneko strategiaren esparruan, eta gogoeta egin zuen unibertsitateekin eta euroeskualdearekin batera EBk erronka globalei ematen dien erantzunari buruz**

Jardunaldia maiatzaren 9an egin zen, Europaren Egunean, Foru Jauregian, Gunea izeneko espazioan. Bereziki erabiltzen ohi da, izan ere, Aldundiak bultzatutako Etorkizuna Eraikiz strategiari buruzko guztiari dagokionetan.

Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak erronka global berriei eta Europaren erantzunari buruz eztabaidatu zuen José Luis de Castro Ruano EHUko Nazioarteko Harremanetarako irakaslearekin, Mikel Mancisidor Deustuko Unibertsitateko irakasle eta ikertzailearekin – akademia eta nazioarte arloetako beste zenbait erakundeekin lotura aipagarriak dituen- eta Arola Urdangarin Nouvelle Aquitaine-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeko zuzendariarekin.

*(informazio +)*



> 2022ko maiatza

- > **Aldundiak amaitu du Belabietako tunelaren egokitzapena, “Europako herritar guztiei babesa bermatzeko”, Europako Batzordeak EBko enbor-sareko bide-ardatzetarako adierazten dituen arauen arabera**

Jarduera kualitatiboki garrantzitsua da lurralde-orekaren, Nafarroarekiko komunikazioen eta Atlantikoko korridorean azpiegitura-sare aurreratua izateko beharraren ikuspegitik.

Belabietako tunela, 1.836 metroko luzerarekin, A-15 autobidean dago (Nafarroa-Gipuzkoa autobidea), eta hodi bat du noranzko bakoitzeko. Azpiegitura hori Europa barneko sarearen parte da, eta, 500 metro baino gehiago dituenez, 2004/54/CE Europako Zuzentarauaren arabera, segurtasun-baldintza berriak bete behar zituen, Europako herritar guztientzat babes berdindua, etengabea eta goi mailakoa bermatzeko.

Egindako hobekuntzen artean, Europako Batzordearen zuzentarauaren eskakizunekin bat datozenak, estalkia sendotzea, estaldura hobetzea eta instalazioak modernizatzea nabarmentzen dira.

*(informazio+)*



### > Eusko Jaurlaritzak Europako Zuzenbidearen balioak aldarrikatu zituen Erasmus+, Europako Zuzenbidearen Institutua eta beste eragile batzuekin batera Donostian antolatutako jardunaldi batean

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak balioetsi egin du Estatuko epaileen zeregina, Europar Batasuneko Zuzenbidearen nagusitasuna zaintze aldera. Olatz Garamendik Erkidegoko Zuzenbidearen printzipioen indarraldia defendatu du eta Eusko Jaurlaritzaren Europarekiko konpromisoa berretsi du. Garamendik Europar Batasuneko Zuzenbidearen Aplikazio Judizialari buruzko IV. Jardunaldia ireki du Donostian.

Ildo horretan, Simmenthal enpresa italiarraren alde 1978an emandako epai bat ekarri du gogora Sailburuak. Epai horretan, epaileak esandako irizpidearekin jardun zuen Europako Zuzenbidearen defentsan, Estatuko legediaren gaineratik. Poloniako Auzitegi Konstituzionalaren kontrako ebazpena ere ekarri du gogora. Izan ere, 2021ean epai bat eman zuen, eta epai horrek ukatu egiten zuen EBko Zuzenbideak Estatuaren eskubideen gaineratik duen nagusitasuna, eta defendatzen zuen, Poloniako zuzenbide iturrien hierarkian, Europar Batasunaren Ituna Poloniako Konstituzioaren azpitik dagoela.

Horrelako egoera baten aurrean, Garamendik adierazi du inoiz baino garrantzitsuagoa dela Europako Zuzenbidearen eta Europako Batasunaren bake eta oparotasun iraunkorreko proiektuaren funtsezko printzipioak gogoratzea. Sailburuak Batasunaren egitura instituzionalaren eboluzioaren alde egin du, eta eginkizun horretan Euskadik zeresan eta zeregin handia duela adierazi du. Horren harira gogorarazi du Euskadik Europa batu eta baketsu baten sorreran parte hartu zuela, Jose Antonio Agirre lehendakariaren edo Francisco Javier Landabururen eskutik. Jarraian, Sailburuak adierazi duenez, "konpromiso handia dugu Europako Batasunaren proiektua bultzatzeko, izan ere Europako Batasuna herrien batasun sendoa, konsolidatua da, balio partekatuak dituzten herritarren oinarrien gainean eraikia".

*(informazio +)*





> **Donostiak bat egin zuen Europaren Egunarekin. 2016ko kultur hiriburutzaren eta 2019ko Europa Sariaren ondoren, 2022ko Gabonetako Europako hiriburua izango da**

Donostiako Udalak bat egin du Europaren egunarekin, eta Europako bandera jarri du masta nagusian. Eneko Goia Donostiako alkateak adierazi duenez, Donostia europarra sentitzen da, eta bere balioak indartu behar dituen Europan protagonista izatea aldarrikatzen du. Horretarako, Europako beste hiri batzuekin batera lanean jarraituko du, komunean ditugun erronkei aurre egiteko.

Donostiak Europa Saria jaso zuen 2019an, Europako eraikuntzaren balioak zabaltzen egindako ekarpenagatik, Europako beste hiri batzuekin izandako lankidetzagatik eta hiriko elkartasun-adierazpen ugariengatik.

Donostia 2022ko Gabonetako Europako Hiriburu izendatzea Italiako Genoa hiriarekin partekatuko duen saria izango da. Sariak Europako Parlamentuaren babesa du. Bi hiri horiek Lieja (Belgika), Valkenburg (Holanda) eta Torrejón de Ardoz hirien lekua hartzen dute, aurretik Eguberrietako Europako Hiriburu gisa ere aitortuak izan zirenak.

*(informazio +- Europaren eguna)*

*(informazio +- Gabonetako hiriburua)*



### > Aldundiak bat egin du EURead Europako Partzuergoak sustatutako Bookstart proiektuarekin

Proiektu hau abian jartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuak lankidetzeta hitzarmen bat sinatu du Mestiza elkartearekin, eta guztira 10.000 euro bideratuko ditu.

'Bookstart' proiektua 1990eko hamarkadaren hasieran jarri zen abian Erresuma Batuan, eta horixe izan zen liburuak oparitzeko munduko lehen programa nazionala, Ingalaterrako BookTrust irakurketa sustatzeko fundazioak zuzendutakoa. 2000. urteaz geroztik, Europako hainbat herrialdetan garatu da programa hori. Gaur egun, 'Bookstart' programak EURead Europako Kontsortzioak koordinatutako sare orokor bat du, irabazi-asmorik gabeko Europako 22 herrialdetako 31 antolakundek osatutakoa

'Bookstart' proiektuaren nazioarteko ekimenaren xedea EURead Europako Kontsortzioaren aliantza da, eta Asociación Artística-Sociocultural Mestiza elkarte aliantza horren kide da 2018az geroztik. Irakurketa sustatzera bideratutako Europako erakundearen kontsortzioa da EURead, eta kontsortzio horren iritiz, irakurketa ezinbesteko baldintza da kulturalki hain ezberdina den egungo gizartean bete-betean parte hartu ahal izateko.

*(informazio +)*



## ESKUALDE POLITIKA ETA KOHESIO POLITIKA

### > **Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako herritarrek proiektuak bozkatu ditzakete Gipuzkoan64.eu webgunean, mugaz gaindiko aurrekontuei begira**

Mugaz gaindiko aurrekontuek beste aurrerapauso bat eman dute maiatzaren 21etik aurrera: [www.gipuzkoa64.eu](http://www.gipuzkoa64.eu) web helbidean ikusgai daude Gipuzkoako herritarrek eta Pirinio Atlantikoetako Departamentukoek bozkatu ahal izan dituzten proiektuak. Web-helbideak aipatzen duen 64 lurralde-kodea Iparralde barneratzen duen Departamentu honena da. Urtarrilaren 27tik martxoaren 3ra proiektuak aurkezteko epea zabalik egon zen. Hemen aurkeztutako proiektuen bideragarritasuna aztertu ondoren, herritarrek 42 ekimen aurkitu ahal izan dituzte zerrendan: 17 Gipuzkoan aurkeztu dira, eta 25 Pirinio Atlantikoetako Departamentuan.

Botoa emateko modu bakarra telematikoa izan da, eta, horretarako, herritarrek [www.gipuzkoa64.eu](http://www.gipuzkoa64.eu) helbidera eta Ideiak 2022 atalera jo ahal izan dute.

«Mugaz gaindiko proiektuak dira, eremu oso desberdinetakoak, eta askoren lidergoa Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuko eragileek partekatuko dute», zehaztu du Mendoza bozeramaileak.

*(informazio +)*





### > Eusko Jaurlaritzak Atlantikoko korridorera lurreko eta itsasoko mugaz gaindiko loturak azkartzea defendatu du Donostian

Euskadi Arku Atlantikoaren Batzordeko kide da, eta gaur egun baita bertako buru edo koordinatzaile da. Batzorde horrek Batzar Nagusia egin zuen Donostiako Kurasaalean. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburu Iñaki Arriolak aurkeztu du bere lehen jardunaldiko hirugarren eta azken saioa, "Atlantikoaren irisgarritasuna eta erakargarritasuna hobetzea: garraioetako lantaldearen aukerak eta erronkak" izenburupean.

Talde honen helburuak hauek dira: arku Atlantikoan garraio iraunkor eta eraginkorra sustatzea, EBren funtsezko lege-berrikuspenaren esparruan (adibidez, Connect Europe Tresna, edo Garraio Sare Transeuroparra); korridore atlantikoaren garapena; garraio-arloko Europako ekimenen jarraipena egitea; eta Europako lankidetzaproiektuak garatzea garraioaren eta portuen esparruan.

Atlantikoko korridorearen kohesioari eta Europa Barneko Garraio Sarearen legediaren helburuak osatzeari dagokionez, Arriolak azaldu du TEN-Taren proposamen berria, 2019an Porton berrikusia, une erabakigarrian iritsi dela gure eskualdeentzat, nahiz eta horrek ez dituen betetzen gure autonomia-erkidegoak lortu nahi dituen itzaropenak eta abiadura.

Bere sare zentrala amaitzeko erritmoa bizkortzea ezinbestekotzat jotzen du, bereziki Nouvelle Aquitaineren eta Euskal Herriaren arteko lotura; bigarren mailako sareen aurrerapenari laguntzea lurralde-kohesiorako tresna gisa; botila-lepoak kentzea eta falta diren loturak amaitzea, batez ere Frantzia eta Espainiaren arteko muga, Espainiaren eta Portugalen artean, baita Europa eta Irlandaren artean ere; eta portuek fatxadan duten rol estrategikoa bultzatzea.

Ildo horretan, Garraio Sailak mugaz gaindiko mugikortasun intermodal, iraunkor eta irisgarria sustatzeko egindako lana nabarmendu du. Horren froga da txartel elkarreragile bat inplementatu dela Gipuzkoako Garraio Agintaritzaren eta Pays Basqueko Syndicat de Mobilité-ren artean edo mugez haraindiko mugikortasunaren berrikuntzarako plataformaren artean, OPOAren, MUBILen eta NAVEACen artean, mugaz haraindiko COMPET izeneko proiektuari esker.

Mugikortasun garbi eta jasangarriko sistemetan oinarritutako Green Deal (Europako Itun Berdea) aplikatzeko, 2030erako helburuak betetzea goraiatu du: deskarbonizatzea, berritzea eta erregulatzea.

Arriola sailburuak adierazi du, gainera, Arku Atlantikoko garraio-lantaldeak eskualdeen baterako gobernantzan sakontzea duela helburu, Euskadiren gidaritzapean.

*(informazio+)*



> 2022ko maiatza

### > **Kataideko bidegorria, Arrasaten, Europar Batasunak finantzatu ahal izango du EGEF funtsen bidez (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa)**

Aldundiko Mugikortasun zuzendariak, Ander Iturrik, Arrasateko Kataide bidegorria inauguratu zuen, San Prudentzio eta Kataide industrialdeak lotzen dituena.

690 metroko hedadurarekin eta 300.000 euro baino gehiagoko inbertsioarekin, oinezkoen eta txirrindularien tarte honek zirkulazio segurua eta erosotasun guztiekin ahalbidetuko du Kataide/Musakola auzoetan Eroski merkataritza-gunera iritsi arte.

Kataideko bidegorria Europar Batasunak finantzatu ahal izango du EGEF (Eskualde Garapenerako Europako Funtsa) funtsaren bidez.

*(informazio+)*



### > **Europako Funtsek 5.200 milioi euro baino gehiagoko ekarpena egin diote Euskadiren garapen sozioekonomikoari 1986tik**

Europa Euskadin jardunaldiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak sustatuta, Europar Batasuneko eskualde-politikak EAEn azken 33 urteetan izan duen eragina azpimarratzen du.

Maiatzaren 9an, Europaren Egunean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak sustatutako zabalkuntza-jardunaldi bat egin da Bilbon, Europako finantzaketak enpresa-sarearentzat eta, oro har, euskal gizartearentzat duen garrantziari buruz; bereziki, Eskualde Garapenerako Europako Funttsaren aldetik (EGEF).

Jardunaldiak berrogeita hamar pertsona inguru bildu ditu, eta Europar Batasuneko eskualde-politika ezagutzeko aukera eman du; elkartasuneko, kohesio ekonomikoko eta sozialeko politika bat da, eskualdeen arteko garapen-mailan dauden aldeak eta herritarren arteko ongizate-desberdintasunak murriztea helburu duena.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko EGEF Programa Eragileari hurbiltzeko balio izan du. Programa horrek Erkidegoaren laguntzak Euskadin esku hartzeko estrategia eta lehentasunak jasotzen ditu, eta EGEFek finantzatutako jardueren bidez gauzatzen da, programazio-aldi jakin baterako.

Euskadiren azken hiru hamarkadetako eraldaketa sozioekonomikoan zerikusi handia izan du Europar Batasuneko eskualde-politikak, bai eta euskal erakundeek Europatik datozen funtsen inguruan egin duten kudeaketak ere.

Lehen ezarpen-alditik (1986-1993) gaur egunera arte (2014-2020), Euskadik 5.267,80 milioi euro jaso ditu Europako Funtsetatik; kopuru horri esker, gaur egun inbertsio publiko guztien % 9,5 diren inbertsioak sustatu dira, eta EAeko BPGaren % 0,21 dira. Ildo horretan, aipatu behar da pandemiaren ondoren Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Eragilearen hasierako zenbatekoari beste 319,15 milioi gehitu zitzaizkiola REACT-EBren bidez, hau da, kohesioa eta Europako lurraldeak suspertzen laguntzeko tresnaren bidez.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta garapen iraunkorra, Euskadiko EGEF Programa Eragilearen ardatz guztiak zeharka zeharkatzen dituztenak, Europar Batasuneko Kohesio Politikaren zeharkako helburuen ildotik.

*(informazio+)*



### > **URAK, Uraren Euskal Agentziak, Donostiako Urumearen ingurua eraberritzen amaitu du. EBko EGEF funtsak 16 milioi euro jarri ditu 10 urtez**

Uraren Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzari atxikita dagoenak, Urumea ibaiaren uholdeetatik babesteko obren hirigintza-egokitzapena amaitu du Martuteneko tartean. Jarduketa horiei esker, Urumea ibaiaren ubideratzearen 1350 metroak Donostiako hiri-sarean integratu ahal izan dira, Martutenetik igarotzean, ur-goraldien emariei eusteko behar den ibilgu-zabalerarekin.

Hala adierazi dute Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburu Arantxa Tapiak, Donostiako alkate Eneko Goiak eta Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi Antonio Aizek Martutenera egindako bisitan.

Martutene ur-goraldi errepikakor eta naturaletatik defendatzeko jarduketa osoak ia 10 urteko jarduketak behar izan ditu; bi fasetan gauzatuak, 32 milioi euroko inbertsio publikoa behar izan dute, eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) ekarpenak jaso ditu.

*(informazio+)*



### > Euskadik hidrogenoaren saretarako mugaz gaindiko lankidetzaren aldeko apustua egin du

H2SAREA ikerketa-proiektu estrategiko aurreratua da, gas naturala banatzeko azpiegituretan hidrogenoa modu seguruan injeztatzeko. Helburua da banaketa-sarea pixkanaka eraldatzea eta gas naturalaren sarean hidrogenoaren nahaste inkrementalekin erabiltzeko beharrezkoak diren soluzio teknologikoak ezagutzea eta eskura izatea, % 100 hidrogenora eraldatu arte.

H2SAREAK 1.300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa ekarriko du 2026ra arte, eta aurreikuspenen arabera 1.340 lanpostu zuzen eta 6.700 zeharkako sortuko dira. Proiektu hau Basque Hydrogen Corridorren parte da.

Proiektuaren zati bat Eusko Jaurlaritzaren Hazitek programaren bidez kofinantzatu da, eta, ondorioz, beste bat Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren bidez ere bai. Funts horren Euskadiko 2021-2027 Programa Eragilean Hazitek-i aurkeztutako proiektuak txertatu dira.

Lehendakariak hidrogenoaren korridorea bezalako proiektuen aldeko apustua azpimarratu du, lankidetzan, klima-aldaketa iraultzeko. Hala, gogorarazi du Euskadik bat egin duela berriki Ebroko Hidrogenoaren Korridorearekin, Nafarroako, Aragoiko eta Kataluniako Foru Erkidegoarekin; eta adierazi du Arku Atlantikoko kokapen estrategikoak eta Frantziarekiko loturak atea ireki liezaiokeela Akitania Berriarekin eta Okzitaniarekin sinergiak bilatzeari. «Lurralde edo erkidego guztiek norabide berean indarrak batzen baditugu, lorpenak garrantzi handikoak izango dira», adierazi du.

Pirinioetako Lan Elkarteko hidrogeno-lantaldeak berriro ekin dio bere jarduerari, zazpi lurraldeen arteko lankidetzaren eta hidrogenoaren arloan duten egoera indartzeko helburuarekin, Europa mailako mugaz gaindiko espazio gisa. Maiatzaren 4an bilera birtuala egin zen PLEko kide diren zazpi lurraldeetako ordezkariarekin eta Pirinioen iparraldean eta hegoaldean dauden hidrogeno-korridoreetako bi bozeramaileekin: Hydrogène Pyrénées Korridorea eta Ebroko Hidrogeno-Korridorea.

[\(informazio+ - H2Sarea\)](#)

[\(informazio+ - PLE\)](#)

[\(informazio+ - Eusko Jaurlaritza\)](#)





> **Euskadik, Nafarroak, Errioxak, Iparraldeak eta Bearnek beren Helmuga gastronomiko bateratua aurkeztu zuten, VISITGastrOH!, POCTEFA programaren barruan**

GATURI proiektuak mugaz gaindiko turismoaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreetako enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetu nahi du, Nafarroa, Euskadi, Errioxa, Iparraldea (Pays Basque) eta Béarn artean Nazioarteko Helmuga Gastronomikoa eraikiz, merkaturatze eta nazioartekotze estrategia bateratuak diseinatu.

VISIT GastrOH! Nazioarteko Helmuga sortzea da POCTEFA GATURI proiektuaren esparruan izandako lorpen nagusietako bat. Nazioarteko tresna nagusia da, bost lurraldeetako gastronomiako baliabideen, nekazaritzako elikagaien eta bitarteko turistikoen, helmugako esperientzien eta ibilbideen erakusleia munduarentzat.

Proiektua 2020ko urtarriletik 2022ko maiatzera garatu da, eta guztira 1.358.777 €-ko aurrekontua izan du. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) % 65ean kofinantzatu du, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren bidez (POCTEFA 2014-2020). POCTEFAren helburua Espainia-Frantzia-Andorra mugaldeen integrazio ekonomiko eta soziala indartzea da. Laguntza mugaz gaindiko jardura ekonomiko, sozial eta ingurumenekoetan oinarritzen da, lurralde-garapen iraunkorraren aldeko estrategia bateratuen bidez.

*(informazio+)*



### > **Nazioz gaindiko musika-lankidetzak. Karlomagno sariarekin Donostia eta Bergarako gazteak Luxenburgera eramango dituzten ekimenen modukoetan parte hartzerak animatzen da**

Akisgranen, Alemanian, Europar Batasuneko Karlomagno Saria eman zaio Portugalgo Orquestra Sem Fronteiras (Orchestra Without Borders) erakundeari. Sari horrek mugaz gaindiko lankidetzak sustatzen du talentu gazteen musikaren bidez, desberdintasunak, sozialki eta kulturalki, arintzeko asmoz. Europako Parlamentuak, Karlomagno Nazioarteko Saria Fundazioarekin batera, urtero animatzen ditu Europar Batasuneko 16 eta 30 urte bitarteko gazteak Europa eta nazioartea modu aktiboan ezagutzen lagunduko duten proiektuak aurkeztera. 4650 proiektu baino gehiago lehiatu dira saria lortzeko 2008tik.

Nahi duten Euskadiko gazte elkarte, talde edo gazteek Karlomagno 2023 sariaren hurrengo edizioan parte hartu ahal izango dute: datorren urteko urtarrilean amaituko da aurkezpenak egiteko epea, eta alde zuzenetik deialdia udazkenean egingo da.

Hain zuzen ere, Luxenburgon, Europako erakundearen egoitzetako batean, albiste izan da hilabete honetan Gipuzkoako musikari gazteen parte-hartzea Kultur Hiriburutzaren esparruan. Musikari Gazteen Europako XIV. Jaialdiak, maiatzaren 26tik 28ra, Bergarako Musika Eskolaren ordezkari bat izan zuen, musika eskolen elkarteak parte hartu nahi zuten euskal etxeen artean egindako zozketaren ondoren.

Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Atotxako Big Konbo musika taldeak ere kontzertua eman du Luxenburgon, Remix22 gazte musikaren Europako jaiaren 14. edizioaren barruan. Europako musika-eskoletako 2.500 ikasleek hartzen dute parte.

[\(informazio+ - Jaialdia\)](#)

[\(informazio+ - Kultur hiriburua\)](#)

[\(informazio+ - Karlomagno saria\)](#)



## EB 2024: ESTRATEGIA

### > **Gipuzkoak 21 udalerritako 2.000 etxe eguzki-energiatz hornitzeko Europako funtsak lortu ditu**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak bultzatuta, milioi bat euro inguru lortu dira Next Generation EU-ren Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruan, Oriako bailarako 5.000 biztanletik beherako 20 udalerritan (Urola bailarako Aizarnazabalez gain) 47 eguzki-instalazioetarako, 1,2 milioi kw/h sortzeko eta 2.000 etxebizitza hornitzeko.

Zumarragan eta Larraulen, lehenago ere 300 familiak baino gehiagok egin zuten bat horrelako proiektuekin, eta Nexten bultzadak Gipuzkoa osora zabaltzen lagunduko du.

Europako laguntzak IDAE Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren bidez bideratu dira.

[\(informazio+\)](#)



> 2022ko maiatza

- > **AZTI zentro teknologikoak gidatu du Marlit Europa mailako proiektua, eta hainbat jardura egin ditu Donostian, Zarautzen edo Miarriritzen, besteak beste, berotze globalaren ondorioz kostaldean sortzen diren arriskuen aurrean**

AZTI zentro teknologikoak gidatu du Marlit proiektua, berotze globalaren ondorioz kostaldeko herrietan sortutako arriskueterako konponbideak bilatzeko.

Emaizen artean daude, besteak beste, olatuen parametroak neurtzeko aukera ematen duten bideometria sistemetan oinarritutako tresnen garapena, eta horrekin lotutako inpaktua; olatuek kostaldeko egituretan duten inpaktuaren indarra neurtzen duen sentsore bat, edo olatuen uholde prozesuak zehazki erreproduzitzeko gai diren eredu informatikoak.

Teknologiak dagoeneko inplementatzen ari dira Miarriritzen, Bermeon, Donostian edo Zarautzen.

Proiektua euskal kostaldean, mugaren bi aldeetan eta Kataluniako kostaldean ardaztu da, bi urte iraun du eta % 65ean Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzatu du Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Programaren bidez.

[\(informazio+\)](#)



### > Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko Itun Berdean oinarritutako Basque Green Deal ekimena aurkeztuko du Irunen, Bioterra 2022an

Eusko Jaurlaritzak Ficobako BIOTERRA azokaren 19. edizioan Euskadiko Itun Berdea aurkeztu zuen, zabalkuntzarako eta eztabaidarako gunea, Euskadiko herritar guztiei ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-estrategia horren errealitatea hurbiltzeko helburuarekin.

Europako Itun Berdea edo European Green Deal, Europar Batasunak proposatua, EBko herrialde kideei krisitik irten eta etorkizun iraunkorragoa lortzeko tresna nagusietako bat da. Europar Batasunak 2050ean klimaren neutraltasuna lortzea ahalbidetuko duen hazkunde-estrategia da.

Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak Euskadira ekarri nahi du itun horren espiritua, Basque Green Deal elkartearen eskutik. Euskadiko eragile nagusiek ekonomia- eta ingurumen-ibilbide-orri horren ardatz nagusiak jorratuko dituzte, hala nola: emisioak murriztea, ekonomia deskarbonizatzea, ekonomia zirkularra, hondakinak baliabide-iturri gisa erabiliz, eraginkortasun energetikoa, mugikortasun jasangarria, elikadura-katearen jasangarritasuna edo ingurune osasungarria lortzeko zero kutsadura.

*(informazio+)*





### > **Gipuzkoako enpresek gidatu dute Estatuaren parte-hartzea Global Industrien, Frantziako industria-ekitaldi handiengan**

Gipuzkoako Ganberak koordinatu zuen azpikontratazio industrialeko enpresen partaidetza maiatzaren 17tik 20ra Parisen egindako ekitaldi honetarako, eta eginkizun nabarmena izan zuen Estatutik etorritako presentziaren aitzindari gisa; horren % 45 Euskal Autonomia Erkidegokoa da, eta % 30 Gipuzkoakoa, metalari, plastikoari, kautxuari, elektronikari eta abarri lotutako sektoreetakoa.

Ekitaldi horretan, Gipuzkoako Ganberak espero zuen urteetan zehar kostu txikiagoko herrialdeetara kanporatzeko joera izan duten osagaiak Europan bertan fabrikatzeko joerara itzultzen ari dela egiaztatzea.

Dagoeneko 45 ediziotan Gipuzkoako Ganbera buru izan zen 1976tik Frantziako Azpikontratazio Azoka nagusitik aurrera (Midest) enpresen parte-hartzean, 2020an izan ezik, urte horretan ez baitzen egin pandemiaren ondorioz. Erabaki hori oso egokia izan da, azpikontratazioaren esparruko azoka-jarduera delako, enpresa gehiagok parte hartzen baitute bertan, eta gure enpresen merkatu eskatzaile nagusian finkatzeko ezinbesteko kanaletako bat delako. Izan ere, azpikontratazio industrialak Gipuzkoako industriaren % 27 da, eta, harentzat, merkatu frantsesa da nazioarteko hazkundera has dezakeen merkatu naturala.

*(informazio +)*



### > **Gipuzkoako bi erakundek, UVESCOK eta Axular Lizeoak, Europako sari baten finalera heldu dira hondakinen kudeaketagatik, Bruselan eman dena**

Uvesco eta Axular Lizeoa Europa osoko 12 hautagaietatik bi izan ziren, Hondakinen Prebentziorako Europako Asteko ekintza onenaren sarirako finalista izatea lortu dutenak, Industria eta Hezkuntza Zentroko kategorietan, hurrenez hurren.

Industria kategorian, UVESCOK hainbat garbigune jarri ditu bere dendetan bezeroek hondakinak ekarri ahal izateko eta, horrela, birziklatzea bermatzeko. Puntu horiek birziklatzeko orduan normalean zalantzak sortzen dituzten eta etxe guztietan oso ohikoak diren hondakinentzat pentsatu ziren (kafe-kapsulak, toner-kartutxoak, pilak eta sukaldeko olioak); biltzeko egindako edukiontzia ere kafe-kapsulen hondarrekin eginda daude.

Beste alde batetik, Axular Lizeoak, Hezkuntza Zentroaren kategorian, hainbat ekitaldi egin ditu ikastetxeak bultzatutako merkataritza jasangarriarekin zerikusia duten proiektuak zabaltzeko. Espaloi iraunkor hori plastikozko botilak erabiliz eraiki da, eta altzariak, berriz, tapoiak bilduz ateratako materialekin.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea Europako Batzordearen ekimena da, eta hondakinen sorrera prebenitu eta minimizatzen bideratutako sentsibilizazio-ekintzak sustatzea eta ezartzea du helburu.

[\(informazio+\)](#)



### > **CAF enpresa beasaindarrak Europako Batzordearen baiezkua jaso du Frantzian eta Alemanian bi ekoizpen planta berri erosteko**

Europako Batzordeak aztertu zuen CAFek Alstom eta Bombardier enpresetako bi lantegi erosi zituela, Frantzia eta Alemanian hurrenez hurren, nahiz eta lehia askerako arrisku handirik sumatzen ez den kasuetarako prozedura erabili.

Hori posible izan da EBk berak eskatu zuelako Frantziako bi enpresen bat-egitea onartzeko, lantegien zati bat hirugarrenei saltzea, merkatu jakin batzuetan monopoliotik hurbil dauden dimentsioak saihesteko. Merkatuen gainjartzea mugatua dela ebatzi da, eta lehiakide sinesgarriak izaten jarraituko dutela baloratu.

Funtsezko baimena lortu da, lantegi horiek saltzeko baimena, eta CAF erosle izateko baimenak beste oztoporik ez izatea espero da.

[\(informazio+\)](#)



> **Forum Europaren Euskadi Tribunal nabarmendu da Euskadik lehen aldiz gainditzen duela I+Gko inbertsioaren Europako batez bestekoa, eta postuak irabazten dituela eskualde berritzaileen eta Horizon esparruaren rankingetan**

Hala adierazi du Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziako presidentek, Manuel Salaverriak, "Forum Europa. Tribuna Euskadi", Nueva Economía Forumek BBKren laguntzarekin antolatua.

Salaverriak nahiago du baikortasun konpultsiboetatik eta hondamendira eramango gintuzketen ezkortasun suntsitzaileetatik ihes egin, eta berrikuntzaren alorrean joera aldatu dela berretsi du, besteak beste, honako datu hauek emanez:

Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuak finantzatzeko funts-bolumen handiena lortu duen Europako bederatzigarren eskualdea da Euskadi (240): 869 milioi euro lortu dira Horizonte 2020 programatik.

Europako Batzordeak Berrikuntzaren Adierazleen Europako Taulan egiten duen sailkapenean, 132. postutik 93.era igaro da Euskadi (240. postutik), eta Euskadi berrikuntza handiko eskualde eta bikaintasun-polo gisa kalifikatzen du.

[\(informazio+\)](#)



> 2022ko maiatza

### > **Gipuzkoako Fegemu, ii40Services eta CEIT-ek elkarlaneko robotak garatzen dituzte 5G sare mugikorrekin, EGEFen 2014-2020 Programa Eragilearen laguntzarekin**

Ekimen hau SPRIren Hazitek programak finantzatzen du, eta Fegemu Solutions du buru ii40Services eta Ceit zentro teknologikoarekin batera, guztiak ere Gipuzkoako bazkideak.

IC2M2ren helburua da elkarlaneko robot mugikor bat ("ARM gaineko cobot") garatzea, beste robot eta ekipo industrial batzuekin modu koordinatuan funtzionatu ahal izateko, eta, horrela, automatizazio-maila konbentzionala baino handiagoa sortzeko, 5G komunikazio-sareen abiadurari esker.

EGEFek, Europako Batzordearen aurrean laguntza horiek ziurtatu ondoren, Hazitek erakundeak enpresei emandakoaren % 50 itzultzeko konpromisoa du, Euskadirako Programa Eragilearen arabera.

[\(informazio+\)](#)





### > Donostiako CIDETEC gune teknologikoak itsas errota eolikoei buruzko Carbo4Power partzuergo europarrean lan egiten du, EBko Horizon berrikuntzako esparru-programaren laguntzarekin

Euskal I+G+b motorrak Europa mailako proiektuak bultzatzen jarraitzen du. Kasu honetan Carbo4Power da, Horizon 2020ren funtsek finantzatua. Bertan, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kide den CIDETEC Surface Engineering euskal zentro teknologikoak partzuergoa osatzen duten beste 17 bazkideekin batera lan egiten du. Offshore turbina-palen belaunaldi berri bat da, fabrikazio aurreratuaren bidez nano-diseinatutako multimaterial hibridoaren arkitektura adimendunekin. Carbo4Power 2020ko azaroan hasi zen.

Atenasko Unibertsitate Tekniko Nazionalak koordinatzen du partzuergoa, eta Europar Batasuneko bederatzi herrialdeetako bazkideek osatzen dute.

[\(informazio+\)](#)



## DOKUMENTU INTERESGARRIAK

- > **Euskadik Europaren Etorkizunari buruzko Konferentziari egindako ekarpenaren dokumentua**

*(informazio+)*

- > **Eusko Jaurlaritzak Next Gen Euskadi webgunea aurkeztu du Berreskuratze eta Erresilientzia Tresnaren Europako Funtsen deialdi, lizitazio eta laguntzetara iristeko bide gisa**

*(informazio+)*

- > **Eusko Jaurlaritzak defendatu egin zuen EBk bere esparru fiskala birplanteatzea, pandemiak EBko gobernantza ekonomikoan duen eraginari buruzko EGAB-en txostenaren aurkezpenean**

*(informazio+)*

- > **Eusko Jaurlaritzak kontuan hartu ditu, estrategia berri baterako, Ijito Herriaren Berdintasun, Gizarteratze eta Partaidetzarako Europako Esparrua eta Antiarrazismoaren aldeko EBren Ekintza Plana.**

*(informazio+)*



- > **Ihobeko eta Basque Ecodesign Centerreko finantza jasagarrietarako taxonomia europarra aplikatzeko gida. Azterketa bat euskal enprezentzat**

*(informazio+)*

- > **Batzordeak eta Eurostat-ek 2022ko txostena argitaratu dute, Europar Batasuneko Garapen Iraunkorreko Helburuei buruzkoa**

*(informazio+)*

- > **EBko enbalaje-arauak berritzea: etorkizun iraunkorrago baterantz? EBrako Euskadiren Ordezkaritzaren txostena**

*(informazio+)*

- > **REPowerEU: EBk Errusiako erregai fosilekiko duen mendekotasuna amaitzeko plana. EBrako Euskadiren Ordezkaritzaren txostena**

*(informazio+)*



## EUROPAKO DEIALDIAK

### > **Batasuneko Babes Zibileko Mekanismoa (UCPM). «Mugaz gaindiko arriskuak eta itsas kutsadura». UCPM-2022-PP**

- *UCPM-2022-PP*

### > **Berrikuntzaren Europako Kontseiluaren Gizarte Berrikuntzaren Eraginaren Saria, 2022. HORIZON-EIC-2022-SocialInnovationImpactPrize**

- *HORIZON-EIC-2022-SocialInnovationImpactPrize.*

### > **EU4Health Osasun Programa. Proiektukako diru-laguntzak (PJ). EU4H-2022-PJ-01...08**

- *EU4H-2022-PJ.*

1. Prostatako, biriketako eta urdaileko minbizia bahetzeko ikuspegi berritzaileen aplikazioa gainbegiratzea eta indartzea.
2. Gaixotasun ez-kutsakorren prebentzioa, kardiobaskularrak eta diabetesa izan ezik
3. Osasun mentalaren sustapena
4. Osasun-teknologiaren baterako ebaluaziorako prestakuntza (pazientea – Profesionala)
5. Erakunde homologatuak gaitzea gailu medikoei buruz
6. Osasun-langileen prestakuntza hornitzea, gaitasun digitalak barne
7. Estatu eta eragile garrantzitsuei laguntzea Covid-19 txertaketari buruzko osasun publikoaren ikerketa berritzailearen emaitzak ezartzeko
8. Osasun-prezioen politikari buruzko alerta-sistemak eta gidak garatzea, Euripid datu-basearen eta prezioen lehia-kasuen gainean
9. Ukrainako errefuxiatuentzako osasun mentaleko laguntza.



> 2022ko maiatza

### > EBko Iruzzarren aurkako Programa (EUAF). Laguntza teknikoa. EUAF-2022-TA

- *EUAF-2022-TA.*

1. Equipamiento y métodos de investigación y vigilancia
2. Hardware digital para auditoría "forense".
3. Tecnologías de análisis y compraventa de datos
4. Detección de comercio ilegal

### > Europa Sortzailea programa. Kulturako atala. CREA-CULT-2022-LIT. Fikziozko literaturaren sektorearen lehiakortasuna bultzatzea.

- *CREA-CULT-2022-LIT*

### > Europa Digitala programa. Zibersegurtasun-atala. DIGITAL-2022-CYBER-02

- Digital-2022-Cyber-02-Nat-Coordination

Estatu mailako zibersegurtasuna koordinatzeko zentroetarako laguntzak.

- Digital-2022-Cyber-02-Supporthealth

Osasun-sektoreko zibersegurtasunerako laguntzak.





### > **Horizon Europe programa. Hidrogeno Garbiaren (CleanH2) Ekimen Teknologiko Bateratua (JTI). HORIZON-JTI-CLEANH2-2022**

- *HORIZON-JTI-CLEANH2-2022.*

- 1.1. Oxido solidodun elektrolisi-teknologiak.
- 1.2. Elektrolisi zeramikoak protoi-eroanbidearekin
- 1.3. Ur hotzarekin eta hidrogeno konprimituarekin egindako elektrolisia
- 1.6. Eguzki-energia bidezko beroketa duen elektrolisia
- 1.7. Banaketa-sareko azpiegiturak
- 1.9 Elektrolisi-teknologiaren eskalatzea
- 2.2. Ihesetarako soluzioak
- 2.3. Substantzia likidatzaileak
- 2.7. Kamioietan aplikatzeko teknologiak
- 2.8. Hidrogenoa konprimitzeko teknologiak
- 2.9. Betelana egiaztatzeko soluzioak
- 2.10. Hidrogenoaren betetzerako soluzioak
- 3.2. Hidrogenozko gelaxkak (bateriak) ibilgailu astunentzat
- 3.3. Ibilgailu astunetan probak egiteko sistemak
- 3.4. Biltegitratze-andelen teknologiak
- 3.5. Ur bidezko garraioetan aplikatzea
- 3.6. Abiazioko aplikazioak: gelaxkak/bateriak
- 3.7. Abiazioko aplikazioak: biltegitratzea
- 3.8. Abiazioko aplikazioak: disruptiboak eta epe luzeagokoak
- 4.2. Amoniakoa erabiltzen duten gelaxkak
- 4.3. Karga neurtzeko sistemak
- 4.4. Hidrogenoz aberastutako erregai-turbinetarako aplikazioak
- 5.2. Hotzeko hidrogenoaren teknologiak (kriogenikoa)
- 5.4. Hidrogeno-nahasketak gas naturalarekin neurtzeko sistemak
- 5.5. Afrikan hidrogenoa garatzeko lankidetzak
- 7.1. Berrikuntza gelaxka eta elektrolizatzaileetarako materialetan

*"EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN" webgunea*